

2. 1. ELKARBIZITZA-BEHATOKIA (EB). ZER DA?

EB ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea, horixe da bere xedea. Azken batean, zer lortu nahi dugu behatoki honen bidez? Komunitateko kide guztiek jakin behar dute baloratu eta entzun egingo ditugula, eta, ikastetxean erabakiak hartzeko orduan, erantzukizuna eta partaidetza izango dutela.

EBk, agian, elkarbizitza-batzordea ekarriko digu gogora; baina EB kontzeptuak beste foro berri bat aldarrikatu nahi du. Egia esanda, elkarbizitza-batzorde horiek, oso asmo ona zekarten, baina, azkenean, eguneroko martxan, diziplina eta zigorra ezartzeko besterik ez ziren erabiltzen. Horrexegatik sortu da EB, jardun demokratikoa sustatuta, dominazio-sumisio eskema guztiak ezabatzeko eta berdinen arteko harremanak sustatzeko. Pertsona guztiek izan behar dute beren erabakiak hartzeko modua, betiere, errespetua, elkarrizketa, negoziazioa eta adostasuna oinarri hartuta.